Además de su labor como componentes de la Junta de Gobierno, y las funciones que les puedan asignar ésta, los Vocales, primero, segundo, tercero y cuarto, sustituirán por ausencia, enfermedad, o cese, por orden correlativo de su numeración, al Decano, en defecto del Vicedecano, y en los mismos casos y por el mismo orden, al Tesorero, y por orden inverso, al Secretario, en defecto del Vicesecretario. Nunca una misma persona sustituirá conjuntamente dos cargos.

III. KAPITULUA
DEKANOA

*35. artikulua.–* Dekanotza, lehendakaritza-organo gisa.

Gobernu Batzordeko lehendakaria izateaz gain, dekanoa lagun bakarreko organoa da eta Arabako Epaitegietako Prokuradoreen Elkargo Ohoretsuaren lehendakariaren eta legezko ordezkariaren karguak ditu; hori dela-eta, errespetua eta begirunea jasotzen du, elkargokide guztiei aholkua eskaini eta denekin jokabide eredugarria baitauka.

*36. artikulua.–* Eginbeharrak eta eskumenak.

Arabako Epaitegietako Prokuradoreen Elkargo Ohoretsuaren dekanoaren eginkizunak honako hauek dira:

a) Elkargoaren ordezkaritza ofiziala betetzea harreman guztietan, botere publikoekin, erakundeekin, udalekin eta era guztietako pertsonekin, eta, zenbait kasutan, eginkizun hori Gobernu Batzordeko kideren baten esku uztea.

b) Gobernu Batzordearen eta horren batzordeen deialdia egin eta lehendakari-kargua betetzea, bai eta organo horietako aztergai-zerrenda onartzea ere; gainera, Batzorde Orokorretako burua izango da, organo horren bilerak zuzendu, bertan behera utzi eta bukatutzat emango ditu, eta kalitateko botoa izango du. Horrekin batera, oro har administrazio-izaerako kide anitzeko organoetako lehendakariei dagozkien eginbeharrak beteko ditu.

c) Gobernu Batzordearen eta bere batzordeen jarduera zuzendu eta koordinatzea, bertan hartutako erabakiak betearaztea eta elkargokideei aholku ematea eta euren jarduna behatzea eta zuzentzea, beti ere dekanoaren aginte-esparruaren barruan.

d) Elkargoaren izenean jardutea edozein negozio edo ekintza juridiko egitean; nolanahi ere, ezin izango du kontraturik izenpetu edo betebeharrak bere gain hartu, Gobernu Batzordeak aurretik hala erabaki ez badu.

e) Araban, elkargoaren eta, oro har, lanbidearen bozeramailea izatea eta, zenbait kasutan, betebehar hori Gobernu Batzordeko kideren baten esku uztea.

f) Elkargoaren gastuak eta inbertsioak baimentzea, horiei dagozkien ordainketak aginduz.

g) Aktei eta ziurtagiriei oniritzia ematea.

h) Oposizioetako eta lehiaketetako epaimahaiak osatzeko elkargokideak proposatzea.

i) Prokuradoreak kanpoan daudela adierazten duten jakinarazpenak jasotzea eta horiek baimentzea araudiari jarraiki, jardunera itzultzen direla jasotzea, bat-batean gaixotzen diren prokuradoreen behin-behineko or-

CAPÍTULO III
EL DECANO

*Artículo 35.–* El Decanato como órgano presidencial.

El Decano, además de presidir la Junta de Gobierno, es órgano unipersonal que ostenta la presidencia y representación legal del Ilustre Colegio de Procuradores de los Tribunales de Álava, por lo que recibe consideración y respeto correlativo a su postura de mantenimiento con todos los colegiados de una relación de consejo y de ejemplo de conducta.

*Artículo 36.–* Funciones y competencias.

Corresponden al Decano del Ilustre Colegio de Procuradores de los Tribunales de Álava las siguientes funciones:

a) Ostentar la representación oficial del Colegio en todas sus relaciones, incluidas las que tenga con los poderes públicos, entidades, corporaciones y personalidades de cualquier orden, así como delegar tal menester para caso concreto en cualquiera de los miembros de la Junta de Gobierno.

b) Convocar y presidir la Junta de Gobierno, así como sus comisiones, aprobando su orden del día, y presidir la Juntas Generales, dirigiendo, suspendiendo y levantando las sesiones, detentando voto de calidad, y en general, ejercer todas las funciones que corresponden a los presidentes de los órganos colegiados de naturaleza administrativa.

c) Dirigir y coordinar la actividad de la Junta de Gobierno y de sus comisiones, velar por el cumplimiento de sus acuerdos, y aconsejar, vigilar y corregir a los colegiados dentro de su autoridad.

d) Actuar en nombre del Colegio en la realización de cualquier negocio o acto jurídico, sin perjuicio de no poder suscribir contratos ni asumir obligaciones sin el previo acuerdo de la Junta de Gobierno.

e) Ser el portavoz oficial del Colegio y del conjunto de la profesión en Álava, así como delegar tal menester para caso concreto en cualquiera de los miembros de la Junta de Gobierno.

f) Autorizar los gastos e inversiones colegiales, ordenando el libramiento de los pagos que atiendan a los mismos.

g) Conceder el visto bueno a las actas y las certificaciones.

h) Proponer los colegiados que deban formar parte de tribunales de oposiciones y concursos.

i) Recibir las comunicaciones de ausencia de los Procuradores y autorizar la misma en las condiciones reglamentarias, acusar su reincorporación, designar sustitutos interinos de los Procuradores que enfermen de

dezkoak izendatzea eta hildako elkargokideen bulegoak ixteko eskatzea modu subsidiarioan, jaraunsleek egingo ez balute.

j) Gobernu Batzordeak eta Batzorde Orokorrak bere esku utzitako eginbeharrak betetzea, premiak edo beharrak eraginda atzeratu ezin daitezkeen erabakiak hartzea eta, bereziki, ezgaitasun, bateraezintasun, debeku edo abstentzio-kausaren batean dauden elkargokideak suspenditzea lanbidearen jardueran, edo gai jakin baterako funtzioetan edo jurisdikzio- edo administrazio-organo jakinetan.

k) Araudiek eta estatutu hauek ezartzen dizkioten gainerako eginbeharrak betetzea eta, oro har, aurreko egitekoak hobeto betetzeko beharrezko direnak, beti ere elkargoaren beste organoen eskumenetan eragiten ez badute.

IV. KAPITULUA
KUDEAKETAREN ERANTZUKIZUNA

*37. artikulua.–* Zentsura-mozioa.

Dekanoak, Gobernu Batzordeak eta batzorde horretako kide guztiek erantzukizun penala edo erantzukizun zibila, arrunta nahiz profesionala, izango dute, bai eta diziplinazko araubidetik eratortzen den erantzukizuna ere, eta gainera, elkargokideei eman beharko diete euren kudeaketaren berri; elkargokideek, bestalde, kontuak hartu ahal izango dizkiete zentsura-mozioaren bidez, estatutu hauetako 14.artikuluak ezartzen dituen legitimazioa eta baldintzak baliatuta.

*38. artikulua.–* Konfiantza-arazoa.

Gobernu Batzordeak ezohiko Batzorde Orokorra deitu ahal izango du konfiantza-arazoa bakarrik planteatzeko bai bere programari buruz, bai kudeaketa-politikaren inguruko adierazpen jakin bati buruz. Batzorde Orokorrak balio osoz erabakitzen badu konfiantza ez ematea, kargu guztiak kargugabetuak izango direla ulertuko da, eta hauteskundeak deituko dira estatutu hauetako 19.3 artikuluan ezarritakoaren arabera; karguak utzi dituztenek ezin izango dute behin-behingoz gobernu-kargurik bete.

HIRUGARREN TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

I. KAPITULUA
ELKARGOAREN ESTATUTUA

1. ATALA
ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA

*39. artikulua.–* Administrazio-zuzenbideari men egitea.

1.– Arabako Epaitegietako Prokuradoreen Elkargoko organoen egintzak administrazio-zuzenbidearen menpe daude, baina izaera zibileko eta penaleko arazoak

forma repentina, y pedir la liquidación del despacho de los que fallezcan, con carácter subsidiario, en el caso de que no lo hicieran los herederos.

j) Ejercer las que le delegue la Junta de Gobierno y la Junta General, así como acordar lo que no admita demora por razón de urgencia o necesidad, y en particular la suspensión en el ejercicio profesional, o en las funciones para un asunto concreto, o ante órganos jurisdiccionales o administrativos concretos, a los colegiados en que concurra causa de incapacidad, incompatibilidad, prohibición o abstención.

k) Las demás que le encomienden los reglamentos y los presentes Estatutos y, en general, todas las que sean precisas para el mejor cumplimiento de las anteriores y no incidan en las competencias atribuidas a otros órganos colegiales.

CAPÍTULO IV
RESPONSABILIDAD DE LA GESTIÓN

*Artículo 37.–* Moción de censura.

El Decano, la Junta de Gobierno, y cada uno de los componentes que integran ésta, al margen de las responsabilidades penales, o civiles, comunes y profesionales, o de las derivadas del régimen disciplinario, responden de su gestión ante los colegiados, quienes podrán exigir dicha responsabilidad planteando la oportuna moción de censura, con la legitimación y condiciones del artículo 14 de los presentes Estatutos.

*Artículo 38.–* Cuestión de confianza.

La Junta de Gobierno puede acordar la convocatoria de Junta General extraordinaria al exclusivo objeto de plantear la cuestión de confianza sobre su programa, o sobre una declaración de política gestora en particular. Si la confianza no se otorga por acuerdo válido de la Junta General, se entenderán cesados de inmediato todos los cargos, y procederá la convocatoria de elecciones conforme al artículo 19.3 de los presentes Estatutos, sin que puedan ejercer provisionalmente cargos de gobierno los cesantes.

TÍTULO TERCERO

RÉGIMEN JURÍDICO

CAPÍTULO I
ESTATUTO DEL COLEGIO

SECCIÓN 1.ª
RÉGIMEN JURÍDICO GENERAL

*Artículo 39.–* Sometimiento al Derecho administrativo.

1.– Los actos de los órganos del Ilustre Colegio de Procuradores de los Tribunales de Álava están sujetos al Derecho administrativo, con las solas excepciones de

salbuetsita daude, hala ezartzen baita tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 48. artikuluan.

2.– Estatutu honetan aurreikusi gabekoetan honakoak aplikatuko dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluari buruzko Estatutua, 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, legea garatzeko oinarrizko xedapenak eta Euskal Autonomia Erkidegoak alor horiek garatzeko emandako arauak.

3.– Epeak Administrazio-legeetan aurreikusitakoaren arabera zenbatuko dira.

*40. artikulua.*– Betearazpena.

1.– Elkargo-organoek hartutako erabaki oro bete beharko da berehalakoan; erabakiak hartzen eta onartzen diren unean sartuko dira indarrean, erabakian bertan bestelakorik adierazten ez den artean.

2.– Hala ere, estatutuak onartu eta aldatzeko erabakiak ez dira indarrean sartuko erabaki horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu artean.

3.– Gainera, elkargokideen zereginak ezartzeko erabakiak, edo deontologia profesionala eragiten dutenak edo arau-hauste eta zigorren erregimenean eragina duten erabakiak ez dira eraginkorrak izango, argitaratu edo jakinarazi bitartean; baldintza hori bete ezean, ezingo dira diziplina-zigorrak jarri. Argitalpen-ondorioetarako nahikoa izango da elkargoetako iragarki-oholean erabakiak jartzea.

3.– Korporazio-errekurtsorik aurkezteak ez du baliogabetzen hartutako erabakia, xedapen batek aurkakoa esaten ez duen bitartean. Gobernu Batzordearen edo Batzorde Orokorraren egintzen aurkako errekurtsoa aurkeztu denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluko Batzorde Iraunkorrak, betiere aldetako batek eskatuta eta txostengileari entzun ondoren, erabakia baliogabetzea erabaki ahal izango du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera.

*41. artikulua.*– Errekurtsoak.

1.– Interesdunek Kontseiluko organoen erabakien eta izapide-ekintzen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango dute, erabaki edo izapide-ekintza horiek gaia zuzenean zein zeharka erabakitzen badute, edo prozedurarekin jarraitzeko aukera oztopatzen badute, edo defentsa-gabezia eragiten bada edo eskubide eta interesak kaltetzen badira; gainera, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal da, hala badagokio.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, Batzar Orokorraren, Gobernu Batzordearen, batzordearen fun-

las cuestiones de índole civil o penal previstas en el artículo 48 de la Ley vasca 18/1997, de 21 de diciembre, de ejercicio de profesiones tituladas, y de colegios y consejos profesionales.

2.– Será de aplicación supletoria en todo lo no previsto en el presente Estatuto, y el Estatuto del Consejo de Procuradores del País Vasco, aprobada por Ley Orgánica 3/1979. La Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo, sus disposiciones básicas de desarrollo, así como la normativa de desarrollo dictada en dichas materias por la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– Los plazos se computarán conforme a lo previsto en la legislación administrativa.

*Artículo 40.*– Ejecutividad.

1.– Todos los acuerdos de los órganos colegiales serán inmediatamente ejecutivos, se presumirán válidos y producirán efectos desde la fecha en que se dicten, salvo que el propio acuerdo establezca otra cosa.

2.– No obstante, la eficacia de los acuerdos referentes a la aprobación y reforma de los Estatutos quedará demorada a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– Asimismo, la eficacia de los acuerdos que conlleven la imposición de deberes a los colegiados, afecten a la deontología profesional, o incidan en el régimen de infracciones y de sanciones quedará demorada hasta su publicación o notificación, según proceda, sin cuyo requisito no serán exigibles ni podrán dar lugar a la imposición de sanciones disciplinarias. A efectos de publicación será suficiente su exposición en el tablón de anuncios de los Colegios.

4.– La interposición de cualquier recurso corporativo no suspenderá la ejecución del acuerdo impugnado, salvo que una disposición establezca lo contrario. No obstante, la Comisión Permanente del Consejo de Procuradores del País Vasco, interpuesto recurso frente a los actos de la Junta de Gobierno o la Junta General, podrán acordar, sin posterior recurso gubernativo, a instancia de parte, y oído el ponente, la suspensión en los términos previstos en la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 41.*– Recursos.

1.– Contra las resoluciones y los actos de trámite de los órganos colegiales, si estos últimos deciden directa o indirectamente el fondo del asunto, determinan la imposibilidad de continuar el procedimiento, producen indefensión o perjuicio irreparable a derechos e intereses legítimos, los interesados podrán interponer directamente recurso contencioso-administrativo, sin perjuicio de la interposición en su caso del recurso potestativo de reposición.

2.– No obstante lo previsto en el apartado anterior, los acuerdos definitivos de la Junta General, de la Jun-

tzioak behin-behingoz gauzatzen dituen organoaren, hauteskunde-prozedurako Mahaiaren, eta dekanoaren edo Gobernu Batzordeak eskuordetutako funtzioak betez erabakitze-batzordeen behin betiko erabakiak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu aurretik, gora-jotzeko errekurtsoa aurkeztu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Osoko Bilkuraren aurrean.

3.– Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ondoren, Gobernu Batzordeak edo batzordearen funtzioak behin-behingoz gauzatzen dituen organoak, ofizioz aldatu ahal izango dituzte beren erabakiak, bai eta dekanoarenak edo Gobernu Batzordeak eskuordetutako funtzioak betez erabakitze-batzordeenak ere.

4.– Elkargo-organoen egintzen aurkako gora-jotzeko errekurtsoa hilabeteko epean aurkeztu beharko da, egintzak argitaratu edo, hala badagokio, elkargokideei edo daragien pertsonei jakinarazten zaienetik hasita. Gobernu Batzordeari zuzendutako idazki baten bidez aurkeztu beharko da, eta honek aitzindariekin eta bidezko txostenarekin batera, hurrengo hamabost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluri igorri beharko dio. Kontseiluak, berariazko xedapenik ez badago, errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabeteko epean ebatzi beharko du. Epea iragan ondoren, ezetsitakotzat jo beharko da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko ondorioetarako.

*42. artikulua.*– Legitimazio berezia.

Batzorde Orokorrak hartzen dituen erabakiak legezkoak ez badira edo lanbideari berari kalte larriak ekartzen dizkionean edo elkargoak dituen helburu eta funtzioak gauzatzeko kaltegarriak direnean, Gobernu Batzordeak legitimatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluaren Osoko Bilkuraren aurrean gorako errekurtsoa aurkezteko. Errekurritutako akordio indargabetzeko eskatu ahal izango du.

*43. artikulua.*– Egintza deusezak.

Elkargoko organoen egintzen deuseztasun eta deuseztagarritasunaren arrazoiak indarrean dauden administrazio arauetan oro har aurreikusitakoak izango dira eta Gobernu Batzordeak ofizioz indargabetu eta berraztertu edo, hala badagokio, aldatu beharko ditu organoen eta eskuordetutakoen erabakiak eta, era berean, Batzorde Orokorraren erabakien aurka gorako errekurtsoa aurkeztu beharko du, akordioak erabat deusezak direnean.

2. ATALA
ANTOLAKUNTZA KORPORATIBOA

*44. artikulua.*– Elkargoaren artikulazioa.

Arabako Epaitegietako Prokuradoreen Elkargoa Epaitegietako Estatuko Prokuradoreen Kontseilu Orokorraren barruan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluaren barruan egongo da.

ta de Gobierno, del órgano que provisionalmente ejerza las funciones de ésta, de la Mesa en el procedimiento electoral, y del Decano o de las comisiones decisorias en ejercicio de funciones delegadas de la Junta de Gobierno, con carácter previo a la interposición del recurso contencioso-administrativo habrán de ser recurridos en alzada ante el Pleno del Consejo de Procuradores del País Vasco.

3.– Interpuesto recurso de alzada, la Junta de Gobierno, o el órgano que provisionalmente ejerza las funciones de ésta, podrá reponer de oficio sus propios acuerdos, y los del Decano o de las comisiones decisorias en ejercicio de funciones delegadas de la Junta de Gobierno.

4.– El recurso de alzada contra los actos de los órganos colegiales habrá de interponerse en el plazo de un mes desde su publicación, o en su caso, notificación a los colegiados o personas a quienes afecten, mediante escrito ante la Junta de Gobierno, quien deberá elevarlo, junto con los antecedentes y el informe que proceda, dentro de los quince días siguientes, al Consejo de Procuradores del País Vasco, el cual, en defecto de disposición específica, habrá de resolver en el plazo de tres meses desde la interposición, transcurrido el cual se entenderá desestimado por silencio administrativo, a los efectos de la eventual interposición de recurso contencioso-administrativo.

*Artículo 42.*– Legitimación especial.

La Junta de Gobierno está legitimada para recurrir en alzada ante el Pleno del Consejo de Procuradores del País Vasco los acuerdos que adopte la Junta General, cuando no sean conformes a derecho, o resulten gravemente perjudiciales para la profesión o para el cumplimiento por el Colegio de sus fines y funciones, pudiendo solicitar la suspensión del acuerdo recurrido.

*Artículo 43.*– Actos nulos.

Las causas de nulidad y de anulabilidad de los actos de los órganos colegiales serán las que se hallan previstas con carácter general en las normas administrativas vigentes, siendo deber inexcusable de la Junta de Gobierno suspender y revisar de oficio, o en su caso, reponer sus acuerdos, y los adoptados por delegación, así como interponer recurso de alzada contra los acuerdos de la Junta General, cuando tales resulten nulos de pleno derecho.

SECCIÓN 2.ª
ORGANIZACIÓN CORPORATIVA

*Artículo 44.*– Articulación colegial.

El Ilustre Colegio de Procuradores de los Tribunales de Álava está integrado en el Consejo General de los Procuradores de los Tribunales, en el ámbito del Reino de España, y en el Consejo de Procuradores del País Vasco, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*45. artikulua.*– Presentzia Kontseiluko Osoko Bilkuran.

1.– Dekanoa Epaitegietako Prokuradoreen Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurako berezko aholkularia izango da.

2.– Dekanoa Euskal Autonomia Erkidegoko dekano nagusia denean, Epaitegietako Prokuradoreen Kontseilu Nagusiko Batzorde Iraunkorreko kidea izango da.

*46. artikulua.*– Presentzia Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseiluko Osoko Bilkuran.

1.– Arabako Epaitegietako Prokuradoreen Elkargoko dekanoa Euskal Autonomia Erkidegoko Epaitegietako Prokuradoreen Kontseiluaren Osoko Bilkurako berezko aholkularia izango da, bi urtez, eta kargu hori Bizkaiko eta Gipuzkoako Prokuradoreen Elkargoetako dekanoekin batera izango du, txandaka.

2.– Gobernu Batzordeak kide bat izendatuko du elkargoaren izenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluko aholkulari jarduteko, kargu hori duen bitartean.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluko Estatutuetan zehaztutako moduez gain, Gobernu-Batzordeak erabateko gehiengoz hala erabakitzen badu, Kontseiluko aholkulari izateari utziko zaio.

*47. artikulua.*– Presentzia Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseiluko Osoko Bilkuran.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluko Osoko Bilkurak behin betiko edo behin behingoz sortzen dituen batzorde erabakitzaileetan une bakoitzean Gobernu Batzordeko kide diren Arabako elkargokideak baino ez dira egongo.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluko Osoko Bilkurak sortzen dituen behin-betiko aholku-batzordeetan Arabako elkargokideak baino ez dira arituko, baldin eta Gobernu-Batzordeari jakinarazi ostean, honek eragozpenik jartzen ez badu.

*48. artikulua.*– Karguen ordezkapenak.

1.– Dekanoa edo Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluko Osoko Bilkurak aholkulari izendatutako Gobernu-Batzordeko kidea Osoko bilkuretara edo, hala gertatuz gero, Batzorde Iraunkorrera bertaratu ezin denean, dekanoaren edo dagokion karguaren funtzioak betetzea dagokion pertsonak ordezkatuko du, estatutu hauen arabera. Osoko bilkuretan dekanoaren edo Gobernu Batzordeko kidearen ordez beste aholkulari batek jardun behar duenean, aholkulari horren ordezkapena estatutu honen arabera oro har ordezkatu behar duen Gobernu Batzordeko kideak egingo du. Nolanahi ere, egotzi zaien karguari dagozkion eskubide guztiak bereganatuko dituzte ordezkariek, boto-eskubidea barne.

*Artículo 45.*– Presencia en el Pleno del Consejo.

1.– El Decano será consejero nato del Pleno del Consejo General de los Procuradores de los Tribunales.

2.– Cuando el Decano ostente el carácter de Decano General del País Vasco, formará parte de la Comisión Permanente del Consejo General de los Procuradores de los Tribunales.

*Artículo 46.*– Presencia en el Pleno del Consejo del País vasco.

1.– El Decano del Ilustre Colegio de Procuradores de Álava, será el consejero nato del Pleno del Consejo de los Procuradores de los Tribunales del País Vasco, ostentando el carácter de Decano del País Vasco, por tiempo de dos años, con carácter rotativo respecto de los Decanos de los Colegios de Procuradores de Bizkaia y Gipuzkoa.

2.– Un miembro de la Junta de Gobierno, será designado por aquélla en representación del Colegio, como consejero del Consejo de Procuradores del País Vasco, en tanto mantenga su condición de tal.

3.– Además de las consignadas en los Estatutos del Consejo de Procuradores del País Vasco, es causa de la pérdida de la condición de consejero de dicho Consejo el libre acuerdo, por mayoría absoluta, de los miembros de la Junta de Gobierno.

*Artículo 47.*– Presencia en las Comisiones del Consejo del País Vasco.

1.– En las comisiones delegadas de carácter decisorio, sean de carácter indefinido o temporal, cuya creación acuerde el Pleno del Consejo de Procuradores del País Vasco sólo podrán integrarse los colegiados en Álava que resulten en cada momento miembros de la Junta de Gobierno.

2.– En las comisiones consultivas de duración indefinida cuya creación acuerde el Pleno del Consejo del País Vasco sólo podrán integrarse los colegiados en Álava, previa comunicación a la Junta de Gobierno, sin que ésta formule objeción.

*Artículo 48.*– Sustituciones de cargos.

El Decano, o el miembro de la Junta de Gobierno designado consejero del Pleno del Consejo de Procuradores del País Vasco, cuando no puedan asistir a las sesiones del Pleno, o en su caso, de la Comisión Permanente, serán sustituidos por la persona a quien, con carácter general, corresponda ejercer las funciones de Decano, o del respectivo cargo, conforme a los presentes Estatutos. En las sesiones del Pleno, cuando la sustitución del Decano o del cargo de la Junta de Gobierno recaiga en otro consejero, éste a su vez será sustituido por el miembro de la Junta de Gobierno a quien, con carácter general, corresponda su sustitución conforme a los presentes Estatutos. En todo caso, los sustitutos gozarán de plenitud de los derechos correspondientes al cargo del consejero que sustituyen, incluido el derecho de voto.

## II. KAPITULUA
## ELKARGOKIDEAREN ESTATUTUA.

### 1. ATALA
### ELKARGOKIDETZEKO ARAUBIDEA

*49. Artikulua.–* Derrigorrezko elkargokidetzea.

Arabako Epaitegietako Prokuradoreen Elkargoan sartu beharko da aurretik nahitaez, Arabako edozein epai-barrutitan prokuradore aritzeko.

*50. artikulua.–* Elkargoan sartzea.

1.– Arabako Epaitegietako Prokuradoreen Elkargoan prokuradore moduan jarduteko honakoak bete beharko dira:

a) Zuzenbidean lizentziaduna eta prokuradore tituluaren jabe izatea.

b) Batzorde Orokorrak elkargoan sartzeko finkatu duen kuota ordaintzea.

c) Ezgaitasun edo bateraezintasunagatik inolako auzitan ez egotea edo prokuran aritzeko debekurik ez izatea, Epaitegietako Prokuradoreen Estatutu Orokorrean adierazitakoen arabera.

d) Prokuradore jarduteko gaigabetzen duen eta kondenagatik deuseztagarria ez den zigor-aurrekaririk ez izatea.

e) Inolako prokuradore-elkargotan jarduneko prokuradore moduan sartuta ez dagoela berariaz eta idatziz aitortzea.

f) Dauden zerga-betebeharrak eginda dituela kreditatzea lanbide-jardueran alta emateko.

g) Lanbidean aritzeagatiko erantzukizun zibilaren ondoriozko arriskuetarako aseguru-kontratu bat izenpetuta izatea, baldin eta elkargoak berak zuzenean elkargokide guztientzat kontratatuta ez badauka.

h) Espainiako Epaitegietako Prokuradoreen Mutualitatean, Prima Finkoko Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean edo, aldizka, Langile Autonomoen Erregimen Berezian alta ematea, Aseguru Pribatuen antolakuntza eta gainbegiraketari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian eta horiekin bat datozen legeetan ezarritakoaren arabera.

i) Konstituzioa zin egitea edo berari eta gainerako ordenamendu juridikoari men egiteko agindua ematea, jardungo den barruti judizialean mailarik handiena duen agintari judizialaren aurrean edo Gobernu Batzordearen aurrean.

2.– Tituludunen berariazko prestakuntza bermatzeko xedez prokuradore jardun ahal izateko baldintza jakin batzuk legez arautzen badira, elkargoan sartzeko aurrekontuetan sartuko dira.

## CAPÍTULO II
## ESTATUTO DEL COLEGIADO

### SECCIÓN 1.ª
### RÉGIMEN DE COLEGIACIÓN

*Artículo 49.–* Colegiación obligatoria.

El ejercicio de la profesión de Procurador en cualquiera de las demarcaciones judiciales de Álava requiere la previa y preceptiva incorporación al Ilustre Colegio de Procuradores de los Tribunales de Álava.

*Artículo 50.–* Incorporación al Colegio.

1.– Para incorporarse al ejercicio en el Ilustre Colegio de Procuradores de los Tribunales de Álava será necesario:

a) Estar en posesión del título de Licenciado en Derecho y el de Procurador.

b) Satisfacer la cuota de ingreso en la cuantía que tenga fijada la Junta General.

c) No estar incurso en causa de incapacidad, incompatibilidad, o prohibición para el ejercicio de la Procura, según las prescritas por el Estatuto General de los Procuradores de los Tribunales.

d) Carecer de antecedentes penales no cancelables por condena que inhabilite para la profesión de Procurador.

e) Declarar expresamente y por escrito no pertenecer, como ejerciente, a ningún otro Colegio de Procuradores.

f) Acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias que existan para el alta en la actividad profesional.

g) Tener suscrito contrato de seguro por riesgos derivados de responsabilidad civil con ocasión del ejercicio de la profesión, salvo que lo tenga contratado directamente el Colegio por dichos riesgos con extensión a todos los colegiados.

h) Darse de alta en la Mutualidad de Procuradores de los Tribunales de España, Mutualidad de Previsión Social a Prima Fija o, alternativamente, en el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos, en los términos establecidos en la Disposición Adicional decimoquinta de la Ley 30/1995, de 8 de noviembre, de Ordenación y Supervisión de los Seguros Privados, y legislación concordante.

i) Prestar juramento o promesa de acatamiento a la Constitución, así como al resto del ordenamiento jurídico, ante la autoridad judicial de mayor rango del partido judicial en que se vaya a ejercer, o ante la Junta de Gobierno.

2.– En caso de que se regulen legalmente unas determinadas condiciones de acceso al ejercicio de la profesión de Procurador, con el fin de garantizar la preparación específica de los titulados, pasarán a integrar los presupuestos de incorporación al Colegio.

3.– Arabako Epaitegietako Prokuradoreen Elkargo Ofizialak ez du inoiz lurralde-barruti bakoitzean gaitutako elkargokideen kopurua mugatuko ez eta elkargokide berriak onartzeko bidea itxiko ere, Arabako Probintzia-Auzitegiko buruari dagokiola zin egiteko edo agindua emateko eta jabetzeko eguna adieraztea.

*51. artikulua.*– Motak eta izenak.

1.– Arabako Epaitegietako prokuradoreak jardunekoak, ez-jardunekoak eta ohorezkoak izan daitezke.

2.– Elkargoan baliotasunez sartu eta lanbidean dihardutenak izango dira jarduneko prokuradoreak.

3.– Ez-jarduneko prokuradoreak honakoak izango dira: gaigabetua egon barik, hori ez den beste edozein arrazoirengatik lanbidean ez diharduena baina elkargoan jarraitzen duena edo beste elkargo batetik modu horretan sartu nahi duena.

4.– Ez-jarduneko prokuradore moduan alta eman edo baldintza horretara iragan ahal izango da, baldin eta aurretik prokuradore benetan aritu izana egiaztatzen badu edo agerikoa bada; baina, nolanahi ere, izenari izaera hori gehitu beharko zaio beti.

5.– Elkargokideen erroldan jarduneko eta ez-jarduneko zerrenda bananduak egongo dira eta horrela osatuko da. Gobernu Batzordeko Idazkaritzak zerrenda horien berri emango die Arabako jurisdikzio-organo guztiei, Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluari eta Epaitegietako Prokuradoreen Kontseilu Orokorrari, alta eta baja guztiekin.

6.– Ohorezko dekano edo prokuradorea Batzorde Orokorrak izendatutako pertsona izango da, Gobernu Batzordearen proposamenez, prokurari edo Arabako Epaitegietako Prokuradoreen Elkargoari egindako merezimendu edo zerbitzu nabarmenengatik. Ohorezko dekano edo prokuradoreak ezin izango du lanbidean jardun titulu horrengatik eta bere izenari beti erantsi beharko dio ohorezko aipamen hori. Ez-jarduneko elkargokidea izan daiteke eta ez ditu elkargo-gastuei aurre egiteko beharrezko ordainketak egin behar.

*52. artikulua.*– Prozedura.

1.– Arabako Epaitegietako Prokuradoreen Elkargoko kide izateko eskabidea idatziz aurkeztu beharko zaio dekanoari, eta horrekin batera prokuradore-titulu konpultsatua eta 50.1 artikuluan adierazitako eskakizunak egiaztatzeko beharrezko diren gainerako agiriak.

2.– Dekanoak egin behar den hurrengo Gobernu-Batzorderako utziko ditu aurkeztutako eskabideak. Batzordeak, hala ere, erabaki hori geldiarazi ahal izango du, eperik laburrenez, zin egin edo hitza eman eta jabetu behar direnez, eskabide-egile kopuru handiagoa izan dadin. Nolanahi ere, estatutuek 50. artikuluan eskatutako eskakizunak egiaztatzen direnean sartzeko nahitaezko erabakia hartu beharko da.

3.– El Ilustre Colegio de Procuradores de los Tribunales de Álava nunca limitará el número de colegiados habilitados en cada demarcación territorial, ni cerrará la admisión de nuevos colegiados, siendo el Presidente de la Audiencia Provincial de Álava el que determine la fecha del juramento o promesa y la toma de posesión.

*Artículo 51.*– Clases y denominaciones.

1.– Los Procuradores de los Tribunales de Álava podrán ser ejercientes, no ejercientes, y honoríficos.

2.– Será Procurador ejerciente quien se haya incorporado válidamente al Colegio y se encuentre en ejercicio de la profesión.

3.– Será no ejerciente el Procurador que, sin hallarse inhabilitado, por cualquier otra causa distinta de la inhabilitación hubiera cesado el ejercicio de la profesión, pero no hubiera causado baja en el Colegio, o pretenda la colegiación bajo dicho concepto desde otro.

4.– Sólo podrá causarse alta como Procurador no ejerciente, o pasarse a esta condición, cuando se acredite el ejercicio efectivo con anterioridad, o resultara notorio, debiendo siempre añadir tal carácter a su denominación.

5.– El censo de colegiados se formará con listas separadas de ejercientes y no ejercientes. Estas listas, con sus altas y bajas, se comunicarán por la Secretaría de la Junta de Gobierno a todos los órganos jurisdiccionales de Álava, al Consejo de Procuradores del País Vasco y al Consejo General de los Procuradores de los Tribunales.

6.– Será Decano o Procurador de honor, la persona natural que la Junta General, a propuesta de la Junta de Gobierno, sea recompensada con tal carácter, por los méritos o servicios relevantes prestados a la Procura o al Ilustre Colegio de Procuradores de los Tribunales de Álava. El Decano o Procurador de honor no podrá ejercer la profesión por tal distinción, y deberá añadir siempre a su denominación el carácter honorífico, pero pudiendo ser colegiado no ejerciente, vendrá excusado de contribuir al sostenimiento de los gastos colegiales.

*Artículo 52.*– Procedimiento.

1.– La solicitud de incorporación al ejercicio en el Ilustre Colegio de Procuradores de los Tribunales de Álava habrá de presentarse al Decano por escrito, al que habrá de acompañarse el título compulsado de Procurador, y los demás documentos que resulten de la acreditación de los requisitos del artículo 50.1.

2.– El Decano trasladará las solicitudes presentadas a la siguiente sesión de la Junta de Gobierno que haya de convocarse, la cual podrá suspender el acuerdo por un plazo lo mas breve posible, a fin de agrupar solicitantes al objeto de la prestación de juramento o promesa y la toma de posesión, sin embargo acordará necesariamente la incorporación cuando se acrediten los requisitos estatutariamente exigidos en el artículo 50.

3.– Lanbidean aritzeari uko egiten bazaio edo prozedura jarraitzea galarazten duen edozein izapide-egiketa gertatzen bada, horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu, Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluko Osoko Bilkurari zuzenduta.

*53. artikulua.–* Jabetzea, elkargokide-zenbakia eta egiaztagiria.

1.– 50.1.i) artikuluan eskatutako zina egin edo hitza eman ostean, edo ageriko egintza batean, epai-agintariaren aurrean aurrekoak egiten ez badira, jarduneko moduan sartutako eskatzaileak, arauz osatutako Gobernu-Batzordearen aurrean jabetuko dira prokuradore-jardunaz. Horretarako, bi elkargokiderekin agertuko da lekukotasuna egiteko eta, une horretan, estatutu hauen kopia emango zaizkio eta zintzo betetzeko eskatuko zaio.

2.– Jabetu ondoren jarduneko prokuradoreak alta hartuko du elkargoan, zenbaki korrelatibo besterezin bat izendatuko zaio eta zenbaki hori prokuradore agertzen den edozein prozeduretako agirietan adierazi beharko da.

3.– Alta eman duten prokuradore guztiei, jarduneko zein ez-jardunekoei, Gobernu-Batzordeko idazkariak sinatutako egiaztagiri bat emango zaie, lurralde-barruti jakin batean, Arabako edozein jurisdizko-organuaren aurrean jarduteko gaitasuna ematen diona, jasotako errolda-zerrendak direnak direla.

*54. artikulua.–* Ezgaitasun, bateraezintasun eta debekuen araubidea.

1.– Prokuran jarduteko ezgaitasun, bateraezintasun eta debekuak eta baita parte ez hartzeko arrazoiak, Epaitegietako Prokuradoreen Estatutu Orokorreko 11., 23., 24. eta 27. artikuluetan eta aplikagarriak diren estatu edo autonomia-mailako legeetan ezarritakoak izango dira.

2.– Ezgaitasun, bateraezintasun, debeku edo abstentzio-kausaren batean sartuta dagoen prokuradoreak Gobernu Batzordeari jakinarazi beharko dio hilabeteko epean, jarduneko prokuradore izateari uzteko, lanbidearen jardun iraunkorrari eragiten badio. Bestela ere, gai jakin batean ezgaitasun, debeku edo abstentzioak eragindako lanbide-jarduerak berehala utziz, edo jurisdikzio- edo administrazio-organo jakinen aurrean. Organo horiei, halaber, ordezkari izateari uzten diola jakinarazi beharko die.

3.– Lanbide-jarduna hasi ostean ezgaitasun, bateraezintasun, debeku edo abstentzio-arrazoiren bat gertatzen bada, gaia zuzentzen duen abokatuari eta ordezten duenari jakinarazi beharko die, agindu-teknikoa indargabetzeko eta prokuradore berria izendatzeko. Ha-

3.– Contra la denegación de incorporación al ejercicio, o frente a cualquier acto de trámite que impida la prosecución del procedimiento sólo podrá recurrirse en vía contencioso-administrativa previo recurso de alzada ante el Pleno del Consejo de Procuradores del País Vasco.

*Artículo 53.–* Toma de posesión, número de colegiado y credencial.

1.– El solicitante incorporado como ejerciente, con posterioridad a la prestación del juramento o promesa requerido en artículo 50.1.i), o en un mismo acto solemne, para caso de que no se efectúe aquél ante la autoridad judicial, tomará posesión del ejercicio de Procurador ante la Junta de Gobierno regularmente constituida, compareciendo con dos colegiados como testigos, en cuyo momento se le facilitará un ejemplar de los presentes Estatutos y se le exhortará a su recto cumplimiento.

2.– Tras de la toma de posesión el Procurador ejerciente causará alta en el Colegio, asignándosele un número de colegiado correlativo intransferible, que habrá de consignarse en los escritos por los que comparezca en cualquier procedimiento.

3.– Todo Procurador, ejerciente o no ejerciente, que haya causado alta será provisto de un documento credencial suscrito por el Secretario de la Junta de Gobierno, el cual servirá para demostrar la pertenencia al Colegio, y en su caso, la habilitación para ejercer en determinada demarcación territorial, ante cualquiera de los órganos jurisdiccionales de Álava, no obstante el tenor de las listas censales que éstos tengan recibidas.

*Artículo 54.–* Régimen de incapacidades, incompatibilidades y prohibiciones.

1.– Las incapacidades, incompatibilidades y prohibiciones para el ejercicio de la Procura, así como las causas de abstención, serán las establecidas en los artículos 11, 23, 24 y 27 del Estatuto General de Procuradores de los Tribunales, y demás que se establezcan en la legislación estatal o autonómica que resulte de aplicación.

2.– El Procurador que se encuentre en alguna de las causas de incapacidad, incompatibilidad, prohibición, o abstención, está obligado a comunicarlo a la Junta de Gobierno en el plazo de un mes, a fin de causar baja como ejerciente, si afectan al ejercicio permanente de la profesión, y en otro caso, apartándose inmediatamente en las actuaciones profesionales afectadas por la incompatibilidad, prohibición o abstención en concreto asunto, o ante órganos jurisdiccionales o administrativos concretos, éstos a quienes también deberá enterar del cese de su representación.

3.– En los supuestos sobrevenidos de incapacidad, incompatibilidad, prohibición o causa de abstención, una vez iniciada la actuación profesional, el Procurador deberá comunicarlo de inmediato al Abogado que dirija en asunto y a su representado, a los efectos del ce-

la ere, bere funtzioetan jarraitu beharko du luzapenak, eskubide galerak edo ordezkatuarentzako kaltegarri den edozein arrazoi saihesteko.

4.– Gobernu-Batzordeak edo, hala behar izanez gero, dekanoak, baja hartu beharra bete ez izanaren berri jasotzen badu, lanbide-jarduera horiei berehala uzteko eskatuko dio eta hamabost eguneko epea emango dio eskaera hori betetzeko edo eskubidez komeni zaiona alegatzeko. Epe hori iragan eta eskaera bete ez badu edo alegazioak aurkeztu ez baditu, Gobernu Batzordeak edo, hala behar izanez gero, dekanoak, funtzioetan jarduteari uztaraziko dio berehala, arrazoiak azaltzen dituen erabaki baten bidez, eta, aldi berean, Arabako jurisdikzio-organo guztiei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluari horren berri emango die. Horrek, nolanahi ere, ez du zigor-espedientearen hasiera galaraziko, hala behar izanez gero. Gobernu-Batzorderi dagokio erabaki bidez jarduteari berriro ekiteko baimena ematea, elkargokideak bere egoera arautu duelako edo ustezko diziplina-espedientearen barruan horrela erabaki delako.

5.– Aurreko paragrafoen erregimena prokuradore aritzen diren elkargokideen multzoari aplikatuko zaio, profesional bat bera bailitzan.

*55. artikulua.–* Baja hartzea eta lanbidean jarduteari uztea.

1.– Prokuradoreak honako kasuetan utziko dio jarduneko elkargokide izateari:

a) Interesatuak nahi duenean eta elkargoari horrela jakinarazi dionean.

b) Beste prokuradore elkargo batean jarduneko elkargokide moduan alta eman duenean.

c) Estatutu hauetan ezarritako baldintzen erantzukizun zibileko asegurua ez izatea, elkargoak berak zuzenean elkargokide guztientzat kontratatuta ez daukanean.

d) Ohiko eta ezohiko kuotak, isurpenak eta gainerako elkargo-zamak ordaindu ez dituenean.

e) Elkargoko lurraldean lanbide-bulegoa itxi duenean, estatutuetako aurreikuspenen arabera.

f) Zehatzeko prozeduran kautelaz bertan behera uzteko erabakia hartu denean.

2.– Prokuradoreak honako kasuetan utziko dio jarduneko elkargokide jarduteari:

a) Heriotza.

b) Erretiroa.

se del mandato técnico y nombramiento de nuevo Procurador, sin embargo de mantenerse en el desempeño de sus funciones por el tiempo imprescindible para evitar dilaciones, pérdida de derechos o cualquier otro perjuicio al representado.

4.– Conocida que sea la contravención por un colegiado del predicho deber de causar baja, la Junta de Gobierno, o en caso de urgencia, el Decano, le requerirá a fin de que cese de inmediato en sus actividades profesionales, otorgándole un plazo de quince días para cumplir el requerimiento, o alegar lo que a su derecho convenga. Transcurrido dicho plazo sin atender al requerimiento o sin formular alegaciones, la Junta de Gobierno, o en caso de urgencia, el Decano, le suspenderá inmediatamente, por acuerdo motivado, en el ejercicio de sus funciones, dando cuenta a todos los órganos jurisdiccionales de Álava, al Consejo de Procuradores del País Vasco, y al Consejo General de los Procuradores de los Tribunales, y sin perjuicio de la incoación del expediente disciplinario que pudiera proceder. La suspensión se levantará mediante acuerdo de la Junta de Gobierno, por haber regularizado el colegiado su situación, o porque así se haya decidido en el seno del eventual expediente disciplinario.

5.– El régimen de los apartados anteriores será de aplicación al conjunto de los colegiados que ejerzan la profesión de Procurador en forma asociativa, como si se trataran de un mismo profesional.

*Artículo 55.–* Baja y cese en la profesión.

1.– La baja del Procurador como pérdida de la condición de colegiado ejerciente se producirá en los siguientes supuestos:

a) La voluntad del interesado comunicada por escrito al Colegio.

b) El alta en otro Colegio de Procuradores como ejerciente.

c) No disponer del seguro de responsabilidad civil en las condiciones de los presentes Estatutos, cuando no lo tenga contratado directamente el Colegio con extensión a todos los colegiados.

d) Falta de pago de las cuotas ordinarias o extraordinarias, derramas, y demás cargas colegiales.

e) Cierre del despacho profesional en el territorio del Colegio que corresponda conforme a las previsiones estatutarias.

f) Acuerdo de suspensión cautelar adoptado en procedimiento sancionador.

2.– La baja del Procurador como cese en el ejercicio de la profesión de Procurador se producirá en los siguientes supuestos:

a) Fallecimiento.

b) Jubilación.

c) Prokuradore-lanbideari aitortutako funtzioak betetzeko ezgaitasun fisikoa edo psikikoa.

d) Bere bulegora bertaratu ez denean, baldin eta kontraesaneko espedientearen ondorioz bertatik aldentzeko hasierako edo luzatutako epea amaitu bada.

e) Debeku edo bateraezintasuna ekar dezakeen egintza, Epaitegietako Prokuradoreen Estatutu Orokorraren arabera.

f) Epai irmoa, baldin eta zigor nagusia edo ordezkoa lanbidearen jarduna edo Justizia Administrazioaren edo herri administrazioren eremuko beste ezein lanbide bertan behera uztea edo horretarako gaigabetzea ekartzen badute.

g) Lanbide-jardunerako ezgaitu edo bertan behera uzteko elkargo-zehapena, zehapen prozeduran erabakitakoa.

3.– Bajak emateko Gobernu-Batzordeak hartutako erabakiak lehenbailehen adierazi beharko ditu idazkariak jarduneko elkargokideen zerrendan. Egintzak eragin duen prokuradoreak, nolanahi ere, lanbide-jardunari utziko dio baja gertatzen den unetik bertatik. Baja arrazoiak: borondatezko eskabidea aurkeztea, debeku edo bateraezintasunak eraginda, bulegoa itxi edo absentziaren ondoren berriz ere hastea, ezgaitzeko edo bertan behera uzteko epai edo elkargo ebazpenaren jakinarazpena jasotzea, 54.3 artikuluan aurreikusitakoari kalterik egin gabe. Ez-jarduneko prokuradore jubilatuen araubide iragankorra horretaz kanpo geratzen da.

4.– Elkargo-kuotak ordaindu ez izanagatik baja emateko, dekanoak ordaintzeko eskaera egin beharko du, diruzainaren proposamenez, elkargo-fitxan agertzen diren lanbide-bulegora edo elkargokidearen egoitzara zuzenduta eta behar bezala jasota geratzeko moduan. Hala ere, elkargokide izateari ekingo dio berriro baldin eta zordundako diru-zenbatekoa eta Estatuko Aurrekontuen urteko Legean adierazten den atzerapenaren legezko tasako interesak eta, hala badagokio, jarri dioten zehapenaren diru-zenbatekoa ordaintzen baditu.

5.– Lanbide-jardunean edo elkargokide moduan baja hartuz gero, ez-jarduneko prokuradore moduan jarraitzeko eskatu ahal izango da.

*56. artikulua.*– Berriz sartzea.

1.– Borondatez baja hartu edo baja eragiten zuen arrazoia desagertu denean, jarduneko elkargokide sartu ahal izango da elkargoan.

2.– Jarduteko eskakizunak betetzen direla egiaztatu ostean baino ezin izango da berriz ere elkargoan sartu. Eskatzaileak elkargoan sartzeko indarrean dagoen kuotaren erdia baino ez du ordaindu behar.

c) Incapacidad física o psíquica para el cumplimiento de las funciones atribuidas a la profesión de Procurador.

d) Falta de incorporación a su despacho al tiempo en que expire el plazo, inicial o prorrogado, de la autorización para ausentarse, previo expediente contradictorio.

e) Hecho impeditivo que constituya causa de prohibición o de incompatibilidad conforme al Estatuto General de los Procuradores de los Tribunales.

f) Condena firme en virtud de resolución judicial que lleve aparejada la pena principal o accesoria de suspensión o inhabilitación para el ejercicio de la profesión, o de cualquiera otra profesión del ámbito de la Administración de Justicia o de cualesquiera Administraciones Públicas.

g) Sanción corporativa firme de inhabilitación o suspensión para el ejercicio de la profesión acordada en procedimiento disciplinario.

3.– Los acuerdos de baja de la Junta de Gobierno se reflejarán a la mayor brevedad por el Secretario en la lista de colegiados ejercientes, sin perjuicio del deber del Procurador afectado por el hecho causante de apartarse de su actividad profesional a partir del mismo momento en que se produzca, bien por haber presentado solicitud voluntaria, bien por haber incurrido en prohibición o incompatibilidad, bien por haber cerrado su despacho o no haberse reincorporado después de ausencia, bien por notificársele la resolución judicial o corporativa de inhabilitación o suspensión, y sin perjuicio de lo prevenido en el artículo 54.3. Se exceptúa el régimen transitorio de los Procuradores no ejercientes jubilados.

4.– Para el acuerdo de baja por causa de impago de cuotas colegiales deberá formularse requerimiento de pago por el Decano, a propuesta del Tesorero, dirigido al despacho profesional o domicilio particular del colegiado que consten en su ficha colegial, y de forma que quede constancia suficiente. Una vez adoptado se podrá recuperar la condición de colegiado pagando la cantidad adeudada más sus intereses al tipo legal de demora de la Ley anual de Presupuestos es del Estado, y en su caso, el importe de la sanción que se le hubiera impuesto.

5.– Quien incurra en las causas de baja en el ejercicio, de la profesión o como colegiado, podrá solicitar su mantenimiento como Procurador no ejerciente.

*Artículo 56.*– Reincorporación.

